

**ARENKO KIROLDEGIA ETA ARTZA FRONTOIA ERAIKINAK
GARBITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN
PLEGUA.**

1. PLEGUAREN XEDEA.

Arenko Kiroldergia eta Artza frontoia eraikinak garbitzeko zerbitzua da kontratu honen xedea.

2. ZERBITZUAREN EDUKINA.

Esleipendun enpresek burutu beharreko zerbitzua honakoa da bere funtsean: Artza udal frontoia eta Arenko udal kiroldegia eraikinak garbitzea, gela, egonleku, saloi eta eskailera eta sarbide guztiak.

Frontoian ez dabez garbituko gela honeek: barra, barrarako sarbidea eta batzartzeko lokala.

- Artza frontoia, egunero garbitu beharko da astelehenetik barikura goizeko 10ak baino lehenago; zapatu, domeka eta jai-egunetan 9ak baino lehen.
- Eguneroko mantentze garbiketaz gain, Artza udal frontoian hiru aldiz urtean (kristalak, garbiketa mekanikoa kantxa zein aldagelena, harmailtako aulkiak eta aldageletako alikatatuen) garbiketa sakona egingo da.

Kiroldegian ez dabez garbituko gela honeek: barra eta barraren komunak, barra eta kiroldegia batzen dabezan pasabideak (garbiketa bereziak bai egingo dira pasabideetan).

- Garbiketea egunean behin egin beharko da, gitxienez, garbitze eta kontserbazino baldintzak beti egoki mantentzeko.
- Garbiketa lanak egunero egingo dira goizeko 6etatik aurrera. Dana dala, Zuzendaritzeagaz adostasunera helduta, jentearentzat zabalik dagoan ordutegi barruan be egin leikez lan batzuk, haren ohiko funtzionamentuari kalterik egiten ez bajako. Enpresa lizitatzailak aldagelen garbiketa bigarren aldi batean egunean zehar nahi izanez gero eskaini bere ordutegia proposatu beharko dau eskaintzan.
- Arenko Kiroldergia herritarrentzat zabalik dagoan ordutegia:

Irailetik ekainera:

Astelehenetik barikura: 8:00-21:30

Zapatu domekak eta jai egunak:

9:00-14:00 16:30-20:00 (Domeketan eta jai egunetan arratsaldez itxita)

Uztaila eta abuztua:



Astelehenetik barikura: 8:00-13:00 eta 17:00-21:30
Zapatu domekak eta jai egunak : 9:00-14:00

- Urtean 12 hilabetetan emongo da zerbitzua. Areneko kiroldegiko instalazioak urtean hamar jaiegunetan, gutxi gorabehera aurreikusten da ixtea.
- Kiroldegi dana egongo da itxita irailaren 1etik 16ra barne. Egun bi edo bat lehenago (beharrizanaren arabera) irailaren irekiera baino lehenago garbitzaile bi egongo dira garbiketa orokorra egiten datorren lan taldearekin. Garbitzaileak oporrak al dabe hartu irailaren 1etik 16ra, eta uztaila eta abuztuan.
- Udalaren Kirol Patronatuak instalazioak zabaldu eta ixteko ordutegiak aldatzeko ahalmena gordetzen dau eta adjudikazinoduna egokitu egin beharko da aldakuntza horretarako bere zerbitzua emoteko.
- Eskuz edo mekanikoki garbituko da, desinfektatuko edo tratamendu higienikoa emongo. Adjudikazinodun enpresek berak ipiniko dauz lanabesak eta beharrezkoak diran produktu egokiak. Udalaren Kirol Patronatuko zuzendaritzeak edonoiz eskatu leike produktu egokiagoak edo kalidade hobekoak erabiltea.
- Garbitasuna mantentzeko lanen barruan sartuko dira instalazioetako elementu guztiak ondo eta era egokian funtzionatzeko beharrezkoak diran eginkizunak, zerbitzu honeengandik itxaroten dan higiena, apaindurea eta erosotasuna izan daien.
- Bai sarritasun taulak eta bai materialei buruzko neurri guztiak bete beharko dira zehatz, euren berezko iraupena luzetuz.
- Urtean hirutan, opor sasoietan (Aste Santuan, Gabonetan eta udan) eta, Patronatuaren Zuzendaritzeagaz aurretiaz adostuta, garbiketa bereziak egingo dira, tailerren gunea, makinan gelea, biltegiak, eraikinen kristaldegiak eta erabilten ez diran gelak be garbituko dira eta garbiketa mekanikoa egingo da hurrengo guneetan: igerilekuko solairuko behea egingo da aireztatutako gune osoan (igerilekuko zutabeak eta kristalerak barne, lirdinga, berdinek ez egiteko), kiroldegiko kantxa, fitness gimnasioa eta kiroldegiko sarrera biak, bereziki tabernaren kanpoko pasabidea, kanpoko zein barrukoa.

1. AGINDU TEKNIKOAK.

Hainbat azalaren garbiketea eta tratamendua:

- Zoruak:



Zoru bakoxta garbitu eta tratatuko da jagokon sistema espezifikogaz bere ezaugarrien arabera.

1. Terrazoak

Distirea gehitu eta higieua bermatzeko, lanbasagaz eta desinfektagarriagaz garbituko dira.

Aldiro, eta beharrezana dagoanean be bai, emultsinoak (lavicera) emongo dira, zoruak distira egiteko baiian laban egin barik.

Urtean behin konponduko dira zoru honeek, kontu handiagaz kristalizatuz, emonda daukazan geruzak kendu eta argizaria emonez.

2. Porodun baldosazko zoruak, gresdunak eta beste batzuk:

Pertza bikotzeko lanbasagaz egunero garbitzeaz gain, kloroa oinarritzat daukan garbigarri eta guzti pasatuko dira astero sistema mekanikoak (zorua garbitzeko makina automatikoa eta eskuiladun birakaria) eta bakterien aurkako fungizida bat be zipriztindu behar da.

Baldosa leundua daukien zoruen mantentze lanetan, kontu berezia jarriko da honeek lehertzeko orduan, erabiltzaileek laban egin ez daien. Mekanikoki lehortuko da zorua (ur-xurgagailua) edo eskuz be bai (mopea).

3. Zementuzko zoruak, kuartzozkoak eta korindoizkoak:

Bustita eta xurgatuta garbituko dira azalera honeek, dagozan egoerea eta sarritasun taulak kontuan hartuta. Ahal dan lekuan, lanbasa pasatu beharrear, xurgagailua erabiliko da. Noiztik behin, eta ahal diran lekuetan, presinozko ur makineagaz baldeatuko dira.

- Komunak, aldagelak eta dutxak, gune kritiko modura hartuko dira:

Egunero egingo da garbiketa orokorra eta zikinkeria garbitzeaz gain, inguruko bakteriak gitxitzeko lana egingo da infezkino arriskua gitxitu ahal izateko.

Infekzino arriskurik handiena komunetan eta dutxetan dago. Temperatura handiakaz (100 graduko lurruna) tratatuko dira eta detergente desinfektagarriak eta hipokloritoa aplikatuko dira. Aldiro, desinfektatze lan hau indartu egin beharko da, gerakin-ahalmena daukien desinfektatzeko produktu bereziak erabiliz.

Baietakaz eskuz garbitzeko, 3 margoen metodoa erabiliko da, gure batzuetatik besteetara gemenak eroaten ez ibilteko:

Balde eta baieta horia: konketak, iturriak eta ingurua garbitzeko.

Balde eta baieta urdina: altzariak, hormak, ateak eta abar garbitzeko.



Balde eta baieta gorria: komuna, bidea, pixatokiak eta abar garbitzeko.

Mangeraz garbituko dira igerilekuko hondartzea eta hormak eta horrez gain, presino handiko ur aplikazioak garbituko dira. Holan ez dira hartituko eta haziko germenak ez bakteriak. Patronatuko Zuzendaritzaek egoki ikusten dauen baktotxean egingo da hau.

Zoru honeek aldiro garbituko dira zoruak garbitzeko makina automatikoagaz eta detergente garbigarri fungizideagaz.

Zeramikearen urdina eta sortzen dan ugerra desinkrustatzaileagaz garbituko dira.

Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak eta germen nagusien aurkako lan antiseptiko eraginkorrak ez dira izango, ordea, kaltegarriak pertsonentzako.

- Hormak eta sabaiak

Hautsa, lorratzak edo mantxak kendu eta xurgatzeaz gain, ze materialekaz eginda dagozan kontuan hartuta, aldiro garbituko dira hormak garbigarri desinfektatzailekaz. Lauzak lurrunagaz garbitu eta desinfektatuko dira.

Sabaietan, hautsa xurgagailuakaz kentzeaz gain, kontu handia izango da armiarma sarerik eta lumetxik egin ez daiten.

Atal honetan sartzen dira argia biztu eta amatetako giltzak be.

- Altzariak eta euren osagaiak:

Altzariak garbi eta erakargarri matenduko dira, hautsa ondo kenduko da baieta tratatuakaz. Eguneroko erabilereak eragindako arraiak eta markak be tratatu egin beharko dira.

Ura eta xaboiagaz garbitu leikezan altzariak, aldiro garbituko dira et gero babesgarri neutroa emongo jake zikinkeria ez itsasteko.

Egurrezko altzariei aldiro emongo jake argizari berezia, hasiera bateko baldintzetan mantentzeko, eta beti barriak diralakoan agertzeko.

- Ateak eta markoak:

Hautsa kenduko jake baieta egokiagaz eta horretarako bereziak diran produktuak erabilia tratatuko dira markak eta mantxak , bai barruko zein kanpoko atetan.

- Kristalak:

Barruko atetako kristalak, manparatakoak, etab. produktu bereziakaz garbituko dira eta kontu handia izango da arraiarik ez egiteko.



- Urrezatuak eta metalak:

Urrezatuak eta metalak, metalak garbitzeko produktu egokiakaz garbituko dira eta, beharrezkoa bada, produktu babesgarria emongo jake, arin urdinu ez daitezana eta euren hasierako itxurea gorde daien.

Altzairu herdoilezinak garbigarri neutroakaz garbituko dira. Produktu urragarririk ez da erabiliko, arraiatu egin leitekez eta. Produktu azidorik be ez, kalidadeak aldatu egin leikiez. Metalak garbitzeko beti erabilten diran produktuak be galazota dagoz kasu honeetan.

Aluminioak be garbigarri neutroakaz garbituko dira, ez da erabiliko produktu urragarririk, kalidadeak galtzeko arriskutan ipinten dabez aluminioak eta.

- Sastarrak non eta zelan itzi behar diran:

Garbitu ostean batzen diran sastar guztiak kontainerretan edo boltsa normalizaduetan jarriko dira egunero batu ahal izateko. Sastarrak bereiztuta batuko dira hondakin-muetearen arabera: papera, plastikoa, beirea, Kontratistek erosiko dauz ontziak, mantenduko dauz eta alperrik galtzen diranean barriak ekarriko.

Erabili beharreko material eta tresna guztiak, erabilian agortzen diranak izan edo ez, kontratistek kontura izango dira, kontserbazioa be barruan dala. Garbitzeko erabiliko diran produktu guztiak Patronatuko zerbitzu teknikoak onartuta egongo dira eta egokiak izango dira zerbitzua emoten dan eraikinen ezaugarrientzat; honek esan gura dau, produktu horreek erabilteak ez deusela ezelako kalterik ekarriko eraikinei.

Higienerako beharrezkoa dan materiala (paper higienikoa, eskuak lehortzekoa, xaboa, etab. Patronatuak horniduko dau, ala kasu honetan esleipendunak izan daiteke, baina adjudikazinodunak ipiniko dau lekuetan beharrezkoa dan baktotxean.

Patronatuaren kontura doaz argia, ura eta lanak burutzeko beharrezkoa dan indarra hornitzea.

1. LANABESAK

- Pertza bikotzeko karroa daukan lanbas industrialia.
- Ura presinoan jaurtiten dauen makinea.
- Lehorrean zein bustita erabilten diran mopak.
- Erabilera anitzeko makina birakaria, zoruak garbitu eta kristalizatzen dauzana.
- Fumigagarria.
- Eskailerak, karroak, boltsak eroatekoak, etab.
- Xurgatzaile industrialia, hautsa zein ura xurgatzen dauzana.
- Erratzak, sastarrak batzekoak, luzatzaileak, teleskopioak, karroak, etab.
- Baietak, mostratzak, eskuilak, etab.



- Segurtasunerako materiala: eskuzorroak, maukatxoak, maskarak, botikina.

2. PRODUKTUAK

- Garbigarri neutroa azalera trataduentzat.
- Aire-freskagarriak.
- Garbigarria, desinfektantea eta aire-freskagarri eta guztikoa, zoruztat, lauzentzat eta beste azalera batzuentzat.
- Bakterien aurkako indar handiko desinfektagarri berezia komunetarako.
- Germenen aurkako lixibea komunetarako.
- Fungizidea, igerilekuko hondartzarako eta aldageletarako.
- Desinkrustatzailea komunean eta higiene osoa behar daben azalera delikaduetan ugerrik ez egiteko.
- Zoruetako geruzak kentzekoa.
- Hainbat aplikaziotarako produktu bereziak: egurra, metala, kristalak, skay, PVC, aluminioa, etab.

3. PERTSONALA

EZAUGARRI OROKORRAK

- Uniformeak eta identifikazioa

Enpresa esleipendunak behar dan moduan uniformauko dauz beharginak, eta beharginek uniforme hori behar dan moduan daroela zaindu beharko dau.

Era berean, beharginek identifikazio txartela edo akreditazio pertsonala eroan beharko dabe aldean zentroan ibili ahal izateko.

- Zerbitzu komun erabilera

Enpresa esleipendunak emon beharreko jarraibideak emongo deutsez zentroak beharginei beharrerako emoten deutsez ura, argiak eta argindarra behar dan moduan erabili daitezkan, eta kontsumo gehiegikeriarik egon ez daiten.

- Hondamenak eta lapurretak

Langileek instalazioetako gauzetan eragindako kalteak, ardurabakokeriaz zein doloz, kontratistek ordaindu beharko dauz.

Kontratistea izango da, era berean, beharginek ostutako materialaren arduraduna, hareek ostu dabela frogatzen bada.

- Langileen babesak

Enpresa esleipenduneko beharginek zentroko eraikinetako eta instalazioetako kanpoko zein barruko kristalak garbitzeko behar diran segurtasun neurriak eukiko dabez, eta enpresa esleipendunaren ardurea izango dira segurtasun neurriak ez beteteagaitik sortu leitekezan gorabeherak.

- Zigorren jakinarazpenak



Enpresa esleipendunak idatziz jakinarazoko deutoz zentroari bertan behar egiten daben beharginei egindako ohartarazpenak eta ipinitako zigorrak.

- Estaldura konpromisoa

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartu dau eskaintzan zehaztutako lanpostu kopurua estaltzeko uneoro; halanda ze, gaixotasunen edo istripuen, baimenen, oporren, zigorren ondoriozko bajen edo lana uztearen ondoriozko hutsuneak oso-osorik bete behar dauz, ordeztu beharreko langileen kategoria berbereko beharginakaz.

- Ikuskapena

Kontratautako zerbitzuak teknikariek ikuskatuko dabez uneoro, eta teknikariek edozein unetan eta lekutan egin ahal izango dabez langileen zein materialen ganeko ikuskapenak. Ikuskapenotan arlo teknikoak, lan arlokoak zein juridikoak hartu ahal izango dira kontuan.

Esleipenduna, era berean, behartuta dago kontrata honetako zerbitzuei buruz teknikariak eskatzen deutozan txostenak eta azterlanak prestetera.

Enpresa esleipendunak, kontratazinorako faktore nagusi moduan, kontuan hartuko dau beharginak Bermeon bizi izatea eta Bermeoko Udalaren Prestakuntza Zentroetako lan-poltsan egotea.

SOLASKIDEA IZENTETEA

Beharrak enpresa esleipenduneko arduradun batek zuzenduko eta kontrolauko dauz.

Enpresa esleipendunak arduradun bat eukiko dau, zentroakazko solaskidea eta ordezkaria izan daiten, eta Udalaren Kirol Patronatuan langileakaz egingo dan lehenengo batzarrean aurkeztuko da. Lagun horrek honeek zereginak eukiko dauz:

Garbitzaileen arduraduna izango da, lanen betearazpena eta baldintza-agiri honetako betekizunak gainbegiratzeko, kontroletako eta garatzeko.

Lanak egiten diran bitartean garbitasunari buruz dagozan kekek edo aldatu beharreko gorabeherak berariaz jasotea, lanak behar dan bezala egin daitezana.

Langilearen ordutegia eta ordutegi hori ondo beteten dala kontroletea.

Garbitasunaren sektorean huelgaren bat badago edo zentroko beharginak eurak egiten badabe, esleipendunak bermatu egingo dau zentroaren eta Kirol Patronatuaren arteko hartu-emona gatazkeak irauten dauen denporarako. Era berean, zentroen zuzendaritzeari ezarri gura dabezan gitxieneko zerbitzuen barri emongo deuto.

ENPRESAKO BEHARGINAK:

Enpresa esleipendunaren obligazioa izango da beharginen eskubideak apliketea, lehiaketaren unean indarrean dagozan hitzarmen kolektiboen bidez. Kirol Patronatuak



ez dau onartuko eta ez da beraren erantzukizuna izango hitzarmenotan onartuta ez dagozan hobekuntza sozialak eta ekonomikoak, eta hori enpresa esleipendunaren erantzukizuna baino ez da izango.

Kontratistearen erantzukizuna izango da oso-osorik beharginen laneko baldintzak legeetan eta indarreko lan-hitzarmenetan ezarritakora egokitzea, antzeko zereginetarako udalerrian bertan egon leitekezan eskaintzetara, lan arloko gatazka egoerak eragozteko, hain zuzen be. Kirol Patronatua erabat salbuetsita egongo da kontratistearen eta haren beharginen arteko hartu-emonen erantzukizunetik.

Kirol Patronatuak ez dau eukiko ezelako zerikusi juridikorik ez laboralik, ezta bestelakorik be, enpresa esleipenduneko langileakaz, ez kontratuak irauten dauen bitartean, ezta kontratua amaitu eta gero be.

Esleipendunak zorrotz beteko dauz laneko arriskuen prebentzinoko eta laneko osasuneko betebeharrak.

Kontratistearen ardurea izango da beharginek janzkeran garbitasuna, txukuntasuna eta uniformetasuna jagotea, eta beharginak herritarrakazko edo Kiroldegi eta Frontoiko langileagazko begirunez jardutea, baita zerbitzuak beteterakoan zarata handiegirik ez eragitea be.

Beharginak behar dan moduan identifikauta egon beharko dabe zerbitzuen segurtasunerako, eta lehiatzaileek identifikazino sistemarik eragingarriena proposatu beharko dabe.

Esleipendunak ezin izango dau atxakia moduan beharginik ez daukala esan lanak eteteko edo atzeratzeko, izan be, uneoro euki behar dau behar beste behargin beharrok egiteko, eta horrek ez dau eraginik eukiko kontratuaren prezioan.

BEHARGIN ALDAKETAK

Kontratua indarrean dagoan bitartean kontratuaren hasikeran egozan beharginen artean aldaketarik badago (erretiroagaitik, heriotzagaitik, borondatezko bajeagaitik, kaleratzeakaitik, aldi baterako ezintasunagaitik edo iraunkorragaitik...) edo zerbitzuen beharrianakaitik aldaketaren bat badago, Udalaren Kirol Patronatuko arduradunari jakinarazo beharko deutso derrigor.

BEHARGINEN SEGURTASUNA ETA ERANTZUKIZUN ZIBILA

Esleipendunak behar dan moduan asegurauta euki beharko dauz beraren beharginak, eta aurreikusitako beharrak egiterakoan hirugarrenei eginiko balizko kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko aseguruak egin beharko dauz.

PRESTAKUNTZEA



Enpresa esleipendunaren ardurea izango da beraren garbitzaileen prestakuntzea, lanpostuaren jardun kualifikaturako prestakuntza teorikoa eta praktikoa hain zuzen be, eta erabili beharreko materialen eta makinaren gaineko ezagutza sakona izan beharko dabe.

SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa esleipendunak Laneko Arriskuen Prebentzinorako Plana euki beharko dau (abenduaren 12ko 54/2003 Legeak aldatu eban Laneko Arriskuen Prebentzinorako zementiaren 8ko 31/1995 Legeko 16. artikulua).

Enpresa esleipendunak zementiaren 8ko 31/1995 Legean aurreikusitako prebentzinorako betebeharrak orokorra osotzen daberen neurriak ezarri beharko dauz, prebentzino egintzearen printzipio orokorren arabera.

Laneko Arriskuen Prebentzinorako Legeko 24. artikulua xedatzen dauen legez, enpresaburu nagusiak beraren jarduerari jagokozan eta beraren beharlekuan egiten diran obretako edota zerbitzuetako enpresa kontratistek eta azpikontratistek prebentzino arautegia beteten dabela zaintzeko betebeharrak dauka.

Enpresa esleipendunak, beraz, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2 artikuluan ezarritako neurriak aplikatu beharko dauz. Hauxe dino ikuskatzeko betebeharraren inguruan "Beharlekuan jarduerak hasi baino arinago, kontratautako obretarako eta zerbitzuetarako arriskuen ebaluazioa eta prebentzino jardueraren planifikazioa egin dabela idatziz egiaztatzeko eskatuko deutse enpresaburu nagusiak kontratistek eta azpikontratistek". Eta 10.2 artikulua bigarren paragrafoak hauxe ezarten dau: "era berean, beharlekuan behar egingo daberen pertsonen informazioa eta heziketa emoteko daukien obligazioa bete dabela idatziz egiaztatu dairen be eskatuko deutse enpresaburuak horreei enpresei".

Enpresa esleipendunak, zerbitzua hasi baino arinago, beharlekuan behar egingo daberen beharginen zerrenda aurkeztuko dau, eta enpresa esleipenduneko prebentzino arduraduna be izentauko dau.

Enpresa esleipendunak beharginen eskura ipinitako garbiketa produktuek Lanean gai kimikoak zerikusia daukien arriskuen kontra beharginen babesari eta osasunari eta segurtasunari buruzko apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuan produktu kimikoak erabilteko ezarritako arauak bete behar dabez.

Enpresa esleipendunak garbiketa produktuak erosi dauz Kirol Patronatuaren gomendioen arabera, arriskutsu legez katalogutako substantziak edo prestakinak ez erabilteko. Produktu kimiko danek segurtasun datuen fitxak (SDF) euki beharko dabez, baita etiketa egokiak be.

Enpresa esleipenduneko beharginen eskubidea eukiko dabe aldizka osasun azterketak egiteko, euren lanpostuko arriskuen arabera. Osasunaren zaintzea egokitatzat joko da honek baldintza danak beteten badira:



Beharginak gai kimikoaren aurrean daukan esposizinoa gaixotasun jakin bategaz lotu baleiteke edo osasunari eragiten badeutso. Gaixotasun hori edo kontrako eragin hori beharginak beraren lana egiten dauen lan-baldintza jakinetan jazoteko probabilitadea badago. Gaixotasun horren sintomak edo osasunerako eragin kaltegarriak detektetako ikerketa teknikak badagoz, eta horrek langilearentzat arrisku txikia badauka.

Istripuak ikertzea. Enpresa esleipenduneko beharginek istripuren bat badaukie eta, ondorioz, lanerako egun bateko edo gehiagoko ezgaitasuna (bajea) badaukie. 24 orduren barruan horren ganeko informazioa dokumentatua bialdu beharko jako Kirol Patronatuari.

Segurtasunari eta osasunari buruzko baldintza zehatzak, obrak edota zerbitzuak esleituko jakozan enpresek zein Kirol Patronatuak berak bete beharko dabezanak.

Enpresa jardueren koordinazioan enpresa nagusiak, Kirol Patronatuak, daukazan betebeharrak eta obligazioak:

- Aurreikusitako neurriak betetea, enpresa lehiakideei jagokenez.
- Enpresa kontratistek LAPko legeria beteten dabela zaintzea.
- Enpresa kontratistek eta azpikontratistek kontratautako obretako eta zerbitzuetako arriskuen ebaluazioa eta prebentzino jardueraren plangintzea egin dabela egiaztetako exijitzea.
- Jagoken beharginek prestakuntzea eta informazioa badaukiela egiaztetako exijitzea.
- Enpresa kontratistek jagokozan egiaztagiriak eskatu behar deustoz azpikontrateari, gero enpresaburu nagusiari emoteko, hain zuzen be.
- Koordinazio bitartekoak ezarteko ekimena.
- Kontratistek eta azpikontratistek behar diran koordinazio bitarteko guztiak ezarri dabezala egiaztetea.
- Prebentzino delegatuei edo beharginen ordezkariari obra- edo zerbitzu-prestazino hitzarmenari edo kontratuari buruzko informazioa emotea.
- Aukeratutako koordinazio bitartekoei buruzko informazioa emotea beharginei.
- Izentautako baliabideak edo personak identifiketako erraztasunak emotea beharginei.
- Prebentzino delegatuei edo, bestela, beharginen ordezkariari kontsultak egitea laneko osasunean eragina daukien enpresen parte hartzearen ondoriozko laneko antolakuntzari buruz.

Enpresa nagusiko, hau da, Kirol Patronatuko enpresaburu titularrak beraren lantokian jarduerak garatzen dabezan enpresaburuei emon behar deustien informazioa:



- Beharlekuan dagozan arriskuei buruzko informazio eta jarraibide egokiak, bai enpresakok arrisku orokorreko buruzkoak bai beharrak egiten diran leku funtzionaleko arrisku bereziak.
- Horreei arriskuei jagokezan prebentzio eta babes neurriak.
- Ezarri beharreko larrialdi neurriak.
- Ezarritako lan prozedurearen arabera eginkizunak egiteko betebeharra edo derrigortasuna.
- Eginkizuna egiteko laneko baimena edo eskumena lortzeko derrigortasunaren definizio zehatza.
- Kontratetarako segurtasun eta osasun arau orokorrak.

Enpresa nagusiak, Kirol Patronatuak, kontratea beteten dauden enpresatik jaso behar dauden informazioa:

- Kontratak egin beharreko jardureagaz lotutako arriskuen ebaluazioa.
- Prebentzio jardunaren planifikazioa, zaintzeko eta kontrolerako.
- Enpresa nagusiko beharginen horreen arriskuen aurrean hartu beharreko prebentzio eta babes neurriak.
- Kontratuko beharginen zerrenda, uneoro eguneratuta, beharginon laneko arriskuen prebentziorako prestaketa-egiaztagiriak eta egin behar dabezan beharrezkoak bat datorren prestakuntza.

Enpresa nagusiak (Kirol Patronatuak) eta kontrateak alkarregekin egin beharreko jarduna:

- Inguruko berezko arriskuak egin beharreko zereginen eragina eta balizko oihartzuna aztertzea, baita, halan bajagoko, neurriak alkarregekin prestatzeko beharrezkoak be.
- Ezarritako prebentzio-babes neurriak beteten dirala zaintzeko eta kontrolerako bideak ipintea; horretarako, hizketakide prestatuak izentau eta batzar ohikoetarako programa bat eta batzar ezohikoak deitzeko bide arinak ezarri behar dira.

4. EUSKERA IRIZPIDEAK

Kontratistearen hartu-emon guztiak, administrazioagaz zein erabiltzaileakaz, euskeraz egin beharko dira. Era berean, bide publikoan zein Kirol Patronatuko eraikinetan ipini beharreko seinaleak, kartelak edo antzekoak euskeraz izan beharko dira.

Edozein kasutan, zorrotz bete beharko da Euskerearen Normalkuntzarako udal Ordenantza.

5.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzu osoa egiteko epea hau da: Urte bateko kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita, urtez urte bi urtera arte luzagarria. Luzapena kontratazio organoak erabakiko du, eta derrigorrezkoa izango da enpresariarentzat.



Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

6.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Kontratu honen prezioa lehenengo urterako 97.500,00 €koa izango da. BEZari dagokion zenbatekoa 20.475,00 €koa da.

Kontratu osoaren prezioa, luzapenak barne, 195.000,00 eurokoa, BEZa kanpo, BEZari dagokion zenbatekoa, 40.950,00 euro.

Desindexazioko 2/2015 Legeak araututakoaren arabera, kontratu honetan ez da preziorik berraztertuko.

7.- ADJUDIKAZINO ERISPIDEAK

Esleipena egiterakoan, honako erizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

A. Prezioa, 70 punturaino.

- Eskeintza ekonomiko onena **70 puntuekin** baloratuko da. 0 puntu lizitazioaren oinarria eskeintzen duenak eta gainontzekoak proportzinalki ondorengo formula aplikatuz:

$$\text{Eskeintzarako puntuak} = \frac{\text{Eskeintza onena}}{\text{Lizitatzaillearen eskaintza}} * 70 \text{ puntu.}$$

Proposamen ekonomikoak neurrigabeak joko dira baja portzentajea, aurkeztutako proposamen guztien batzbestekoa ehuneko hamabosteko portzentaia gaindituz gero.

B. Hobekuntzak, 30 punturaino.

10 punturaino. Hornikuntzak.

- 19 edukinontzi eta sarrerako alfonbra, hileroko aldaketak eta Jaboa eta komuneko paperaren hornikuntza, edukinontzi barne, beharizanaren arabera **5 puntu**



- Eskuko papera, TORK edukinontziak eta dagokion paper roiloa eta aterkinak sartzeko plastikoak. **5 puntu**

1. Hornikuntza guztiak egun daudenak izango dira. Aldaketaren bat proposatuz gero zuzendariarekin adostuko da.

10 punturaino. Garbiketa bereziak.

- Inox materialaren garbiketa berezia (3 aldiz urtean) **4 puntu**
- Koltxoneten desinfekzio berezia, urtean behin (deskribatu eta zehaztu noiz eta nola), **puntu 2**
- Kirol material txikiaren (mankuernak, pesak, gomak,..) desinfekzio berezia urtean behin (deskribatu eta zehaztu noiz eta nola) **4 puntu**

5 punturaino. Kontratuaren jarraipena eta ezustekoen erantzuna.

- Lan taldearen jarraipen proposamena “in situ”, enpresak jarritako kanpoko arduradunaren aldetik

hilerokoa **0 puntu,**

hamabosterokoa **puntu 1,**

asterokoa **2 puntu.**

- Patronatuaren jarduera arrunta ezin denean eman ezusteko baten aurrean, Garbiketa enpresaren erantzuteko denbora

3 ordu edo gutxiago **puntu 1**

Ordu bi edo gutxiago **2 puntu**

Ordubete edo gutxiago **3 puntu**

5 punturaino.



- Aurreko puntu bietan azaldu ez diren arren Baldintza Orri honi egiten zaizkion hobekuntzak 5 punturaino baloratuko dira, adibidez, garbiketa lanak egiten diren sarritasuna hobetzen bada, edo eskaini gura den beste edozein eratako hobekuntza.

8.- ENPRESA SAILKAPENA .

Lehiatzaileak hurrengo enpresa sailkapenak eduki beharko ditu:
U Taldea, 01 azpitaldea, A kategoria

9.- LANGILEEN SUBROGAZINOA

Enpleguaren egonkortasun printzipioa bete eta bermatzeko asmoaz, urteten dauen enpresako langileek, euren kasuan, zerbitzuaren esleipena lortzen dauen enpresek hartuko dauz, ordezkatu dan enpresan eukiezan eskubideak, betebeharrak ekonomikoak, gizarte mailakoak, sindikatuetakoa eta pertsonalak errespetatuz honek.

LANGILEEN ZERRENDEA

CLYMAGRUP, S.L.,

MAILA	ANTIGÜEDAD	Orduak astero
Garbitzailea	01.03.2004	29 ordu astero
Garbitzailea	01.11.2006	26 ordu astero
Garbitzailea	01. 04.2009	14 ordu astero
Garbitzailea	12.06.2007	10.5 ordu astero
Garbitzailea	14. 05.2006	26 ordu astero

